

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

102/2019 Foru Agindua, otsailaren 20koa, onesten duena karrerako funtzionario izendatzea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 25/2018 Foru Dekretuak xedatutakoa betez transferitutako lan kontratadunak. Foru dekretu horren bidez, onespena eman zitzaion Eusko Jaurlaritza-Arabako Lurralde Historikoa Transferentzien Bitariko Batzordearen 2018ko ekainaren 4ko erabakiari, zeina baita Estatuarenak diren eta Arabako Lurralde Historikoan dauden artxiboen kudeaketa eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa

Azaroaren 21eko 549/2018 Foru Aginduaren bidez, hautaproba mugaturako deia egin zen, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 25/2018 Foru Dekretuak xedatutakoa betez transferitutako lan kontratadun langile finkoak karrerako funtzionario izateko. Foru Dekretu horren bidez, onspena ematen zaio Estatuarenak diren eta Arabako Lurralde Historikoan dauden artxiboen kudeaketa eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruz Eusko Jaurlaritza-Arabako Lurralde Historikoa Transferentzien Bitariko Batzordeak 2018ko ekainaren 4an hartutako erabakiari.

Hauexek dira hautaproba mugatu horietara deitutako pertsonak, haien kategoria eta guzti:

IZENA	JATORRIZKO KATEGORIA
María Dolores de la Cruz Martínez andrea	Kopiagintzako teknikari laguntzailea
Ángel María Alonso Fernández de Garayalde jauna	Menpekoa

Deialdiaren seigarren oinarrian jasoriko hautaketa prozesuarekin bat etorritik, kalifikazio batzordeak proposatuko du deitutako bi pertsonak karrerako funtzionario izendatzeko behin egiaztatu ondoren eskatzen zaizkien baldintzak betetzen dituztela eta behin berriazko merezimenduen faseko emaitzak baloratu ondoren.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Dolores de la Cruz Martínez andrea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izendatzea, eta C1 titulazio taldean, administrazio bereziko eskalan, zerbitzu berezien azpieskalan, lanbideetako kideak klasean sartuko da.

Bigarrena. María Dolores de la Cruz andrea Agiritegi Zerbitzuko "kopiagintzako teknikari laguntzailea" lanpostuari atxikitzea (kodea: 1575.001).

Hirugarrena. Ángel María Alonso Fernández de Garayalde jauna Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionario izendatzea, eta E titulazio taldean (AP), administrazio orokorreko eskalan, menpekoen azpieskalan sartuko da.

Laugarrena. Ángel María Alonso Fernández de Garayalde jauna Agiritegi Zerbitzuko “agiritegi eta liburutegietako mandataria” lanpostuari atxikitzea (kodea: 1501.003).

Bosgarrena. Izendapen hau oinarri karrerako funtzionario bihurtzeak lan harremana iraungitzea ekarriko du.

Seigarrena. Foru agindu honek 2019ko martxoaren 1etik aurrera eragingo ditu ondorioak, eta data horretan formalizatuko da lanpostuaz jabetzea.

Zazpigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan -urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik- xedatutakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 20a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR